




# Bira Zapatista European 2021 (c)

 **Komunitate Zapatistak** Mexikoko Hego-ekialdean kokatzen dira, **LaCaNdOnako Oihanean, Txiapasen.** **Autonomia Integralaren Abordatzea** egiten dute, **Obedituz Agintzeko Printzipioen** dinamika bultzatzen duten erakundeen bidez. **Erresistentzia eta Errebeldia Zapatistaren 43 Zentroetan** (CRAREZ) aplikatzen dira printzipiook, izan **12 Karakoletan** eta haien **Gobernantza Onerako Batzarretan** edo izan **Herri Autonomoetan.**

 **Erabilpen eta Ohiturengatik** **Kontsentsu** bidezko **Erabakitze**ko **Gaitasuna** darabilte, **Asanbladetan.** Horietan eraikitzen dute **Botere Kolektiboa** (-tic), **'Gu'**-a, horizontala dena, eta parentesi artean gelditzen da **EZLN**ren botere bertikala. **Epojé.**

**7**  
**OBEDITUZ**  
agindu  
**7** **2777**





Dinamika horiek, **Komunitatearentzako Lanak** direnak, guztiontzat dira onuragarriak, baita gauzatzen dituenarentzat ere. Ongi prestatu beharra du eta besteei hori eman, bere familia zaintzeaz gain, lana edozein dela ere:

**Autoritatea**, **Eskolatzoko** edo **Osasuneko Sustatzailea**, **Liburuak**, **Justizia**, **Ekoizpena**, **Milpa** (baratzea), **Komunikabideak (Tercios Compas)**, **Kultura**, **Eraikuntza**, **Zurgintza**, **Gidari lana** edo besteren bat.



**Ekonomia Lurretik** dator, **Milpa-tik**: artoa, babarruna, txilea, kalabaza eta kafea bereziki. Ehunak eta oihalak ere egiten dituzte, dendak eta baserri kolektiboak.



**Zapatistak** oso alaiak dira eta **musika** eta **dantza** asko maite dute, asanbladen ondoren beti izaten dira. **Pozol-a** ere gustoko dute, arto eta kakaoarekin egiten den edari gozo eta indartsua. Urak, fruitu desberdinekin egindako zukuak, kafea, krispetak eta tabakoa. Ez dute alkoholik ezta drogarik hartzen. Tortillak txekorki eta oilaskoarekin dira haien ohiko jakia, janari mexikarra bezala.

